

Astekaria

BARRREN

elgoi



Jabier Arriola,

MARKAK HAUSTEN



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

3 LAU HANKATAN

"Idatzi behar dizuedan mezua ez da konbentzionala izango, interaktiboa deritzan horietariko baizik". **Alberto Ansuategi**

6 ERREPORTAIA: UDARAKO ERREZETA: KIROLA

Udan, aisialdirako denbora gehiago izan ohi du jendeak, eta eguraldia lagun, zer hobe kirola egitea baino.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: NON EGITEN DITUZU EROSKETAK?

Mari Jose Estibariz: "Merkatari txikiak eskaintzen duen kalitatea eta zerbitzua ezinezkoa da hiperretan."

Susana Azpilikueta: "Erosketak egiterako orduan, ez diet inolako alde negatiborik ikusten hipermerkatuei, abantailak baino."

16 BERBETAN: Luis Mari Zubiaurre

"ARTEA ETA INPRENTA BANAEZINAK DIRA".

18 KIROLA:

GAIA: IKASXEROX ESKUBALOIKO TALDEA EUSKADIKO TXAPELKETAN ELKARRIZKETA: **Jabier Arriola.** MARKA BERRIA ZILINDROAREKIN

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

EKEKEI: ZAZPI PIRATA "HILTEGIAN"

21 KULTURA

JOXE MIGEL BARANDIARAN BEKA ESKURATU DUTE BI ELGOIBARTARREK

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 12, larunbata: **BIDASOLO**
- 13, igandea: **BIDASOLO**
- 14, astelehena: **YUDEGO**
- 15, asteartea: **YUDEGO**
- 16, asteazkena: **YUDEGO**
- 17, osteguna: **YUDEGO**

18, ostirala: **ORMAZABAL**

OKINDEGIAK:

14, igandea: **ZABALETA**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK


Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN

Alberto Ansuategi



Mezu interaktiboa

OHARRA:

Lerro hauek ekainaren 11an jaioko

gidari izan nahi dugu, izan ere honako hau etorkizunaren lehen eguna besterik ez baita.”

badira ere, egun batzuk aurretik ernatutakoak dira, astebete aurretik hain zuzen ere. Beraz, hau idazten ari naizenean hauteskundeak gertatzear daude, bertako emaitzak ez ditut eza-gutzen eta, halere, zuei, gertatutakoaz jakinean zaudeten elgoibartarroi, nire mezu elektoral bidaltzea otu zait. Baina idatzi behar dizuedan mezua ez da konbentzionala izango, “interaktiboa” deritzan horietarikoa baizik, hots, norberak aukeratutako mezua. Beraz, hauteskundearen emaitzekin poztu zarenok azpiko parrafoetatik lehena irakurtzeko aukera duzue, emaitzak gustoko ez dituzuenontzat bigarrena eta, ni bezala, politikaz kokoteraino zaudeteno Fernando Pessoren olerki bate-tan oinarritutako azken parrafoa gomendatuko nizuke. Halere, laugarren aukera bat baduzue (hoberena, agian): paso egitea eta astekariaren gainontzeko atalak irakurtzea.

1. “Lanerako garaia iritsi zaigu, abegikortasunez geroa lantzeko unea, eta atzeraldi honetatik ateratzeko aukera. Eskuak batuz herriaren nahia betetzeko irrikiz gaude, gehiengoaren babesean eta elkarlanean, gizartearen

2. “Etsipenak ez diezagula begirada lausotu eta gehiengoaren aurrean gure helburuen alde borroka egiteko eskubidea ez dezagun ahaztu. Gure garraxien oihartzuna helduko zaien itxaropenak zuzpertz behar gaitu, geure itzallak urduri jarriko dituenaren esperantzak bultzatu behar gaitu, inoiz ere etsigabe, geure izaera geure ekimena besterik ez baita.”

3. “Atzo arratsalde hiriburuko gizon batek tabernaren atarian justiziaz hitzegiten zuen, eta justizia lortzeko egin beharreko borrokaz. Langile eta enpresariei buruz ere bai, aberatsei eta gose direnei buruz baita ere. Eta nire begietan malkoak ikusi zituen, eta atsegin handiz irrifar egin zuen nik berak sentitzen zituen gorrotoa eta errukia sentitzen nituela auresuposatuz. Baina nik ia ez nion entzun ere egiten. Eguzkia menditartean izkutatzen ari zelako negar egiten nuen. Eta gizona, ortzmugara begiratzuz, isildu egin zen. Baina, nola axola dakioke ortzmuga, maitatu eta gorrotatu egiten duen gizon honi?”

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Administrazioa**
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
SS-1.038/92
- ISSN**
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIAK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Ikastola publikoaren alde

-Elgoibarko Ikastolako junta errektorak ez du jakin maiatzaren 24ean egindako asanbladan ikastola publikoaren aldeko emaitzak irensten. Federazioaren estrategiak gehiago balio du, dirudie-nez, gurasoen borondate-ak baino.

- Junta erretora horrek ez gaitu, ikastola publiko-aren alde apustu egin dugunok ordezkatzten. Kargu hori uztea lukete, beraz, bidezkoena.

-Beste biderik ezean, geure aldetik dihardugu lanean, gehiengoaren nahia errespetatu dadin.

- Ematen ari garen eta eman uste dugun pausoen berri izango du herriak bere garaian.

Bien bitartean, ez dugu zentzugabeko ezta-baidetan sartzeko asmo-rik. Izan ere, badirudi argudio merkeekin erabili nahi gaituztela, berriz ere (ikastolak desagertzeko

arriskua, BUESAren nola halako adierzpenak e.a.) Badugu itxaropen jende-ak jakingo duela funtsez-ko argudioak eta mamuak bereizten. Funtsezko argudioa honako hau da, gure ustez, une honetan: Elgoibarko ikastolak sare publikoan duela BEREZ-KO KOKAGUNEA ETA EGINKIZUNA. Izan gai- tezen zentzudun!

Ikastola Publikoaren Aldeko Taldea

Eskolarteko jokoan sari banaketa

Larunbatean, urtero bezala, sari banaketa egin zen Foruen Plazan, eta denok joan ginen ekintza hori ikustera.

Aurten txapeldunei eman dizkiete sariak, eta dakidanez lehen, bigarre- nei ere ematen zizkieten. Hiru urte daramatzat entrenadore bezala eta penagarria da, urtebete jokatzten pasa eta gero,

bigarrenei ezer ez ema- tea.

Beno, txapeldunei, behintzat eman dizkiete sariak, baina nola? Denok dakigu, ia talde bakoitza gutxienez 12 jokalariz osatuta dagoela. Salbues- penak daude, noski, talde batzuk handiagoak eta beste batzuk txikiagoak dira.

Harira joango naiz. Aurten Udalak ume bakoitzari boltsa bat eman dio. Beno, hau erla- tiboa da. Talde bakoitzari 10 boltsa eman dizkio eta, lehen esan dudan bezala, taldeak gutxienez 12 jokalariz osatuta daude. Batzuk boltsarik gabe geratu dira. Orain- dik umeak direla eta, uler dezakezue horrela ezin dela ibili.

Sutan irten nintzen Plazatik eta ez nintzen bakarra izan. Hainbeste balio al dute boltsa horiek?

Talde baten entrenadorea

HBren oharra

Joan zen asteko BARREn alean, Herri Batasunak Elgoibarko presoak aipatzen zituen, hauteskundeetako iragar- ki batean. Hutsune galan- ta zegoen bertan, Iñaki Jaio, elgoibartar presoa falta baitzen.

Ekainak 6an egindako hauteskundeek, Herri Batasunak Euskal Herri- rako duen proiektu politi- koaren baieztapena eta indartzea erakutsi digu. Halaber, politika sasi- abertzaleak ondorio beza- la ekarri duen espainol gorakada. Emaitza hauek eskaintzen dizkie Herri Batasunak Elgoibarko preso- ei: Alberdi, Ibañez, Iriondo, Lariz, Jaio eta Sebas, besarkada anaikor eta bero batekin batera.

Elgoibarko Herri Batasuna

KIROLAK



Errosario 16-18 ☎ 74 32 68



CASA
ASTIGARRAGA

LORAK



BIZIKLETAK

Errosario 27 ☎ 74 43 86



AZKUE

Aste honetako erretratua **Pake Garziak** lagatakoa da. Berak esan digunez, 1952. urtean Plaza txikian ateratakoa da.

Zer egiten du horrelako neska gazte kuadrila batek Plaza Txikian igande arratsaldean? Pakek esan digunez, ezkontza despedida bat izan zen arrazoia.

Mari Karmen Garmendia ezkondu aurretik kuadrilakoez egindako despedidako erretratua omen da.

Garai haietan igande arratsaldetan egiten ziren despedidak. Orduan, larunbatetan, eskolak eta bestelakoak izaten zituzten; "sabado ingles" geroko ipuina omen da.

Taberna batean elkartu, txarriki piska bat jan, gozotik bastante (itxura handirik ez bada ere), txokolate katilukada eder batekin bukatzen zutelarik eguna. Ezkondu

aurretik, egun, "despedida" bezala ezagutzen dugunari "refresko" deitzen zioten ordukoek.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen duten emakume kuadrila hau:

Eserita, ezkerretik eskumara: **Anparo Barrutia, Mari Karmen Zuazubizkar, Karmen Garmendia, Mari Zubiaurre** eta **Ana Mari Zuazubizkar**.

Erdiko iladan: **Itziar Konde, Maria Badiola, Rosario Beloki, Pili Zabala, Luzia Zabala, Juanita Rementería** eta **Katalin Mugerza**.

Zutik: **Kontxita Armendia, Beatriz Aiesta, Itziar Ajuria, Pakita Opakua, Maria Luisa Rementería** eta **Elena Opakua**.

● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza matrikulak zabalik daude

Ekainaren 1etik 15era. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)



BERUNIK GABEKO GASOLINA- MICHELIN AGENTZIA- GURPIL NEURKETA- PRESIOZKO
GARBIKETA- GARBIKETA NEUMATIKOA-ASPIRAGAILUA

REZOLA GASOLINDEGIA

DEBA KALEA 20, Posta kutxa 5 Tel: 74 00 17- 74 02 41 ELGOIBAR

GARAY



HARATEGIA
URDAITEGIA


San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Udarako errezeta: Kirola

Udan, aisialdirako denbora gehiago izan ohi du jendeak, eta eguraldia lagun, zer hobe kirola egitea baino. Asmo honekin, udako kirol kanpaina kaleratu du Udal Kirol Zerbitzuak, aurten, seigarren aldiz.

Haur, gazte eta helduen arteko kirol zaletasuna pizteaz gain, urtean zehar eguraldi txarra zein denbora faltagatik praktikatu ezin diren kirol iharduerak burutu ahal izatea da helburu nagusienetarikoa.

Eskaintzen diren kirol iharduera guztiak entrenigarri izan nahi dute batez ere, konpetitibota-



↳ Tenisa izan zen iaz arrakasta handiena izan zuena, partaidetza aldetik behintzat.

suna alde batetara utzita.

Udarako kanpaina adin guztietako pertsoneri zuzendua dago. Aurten, 11 kirol iharduera egiteko aukera izango dute haurrek eta 10 kirol ezberdin, gazte eta helduek. Kirol guztiak ingurune natualetan, hau da, betiko kirol instalakuntzetatik at burutuko dira.

Ahalik eta jende gehienak har dezan parte, kirol bakoitzeko

ordaindu beharreko kuota jende guztiarentzat eskuragarri izaten saiatu da Udal Kirol Zerbitzua. Haurrentzako kiroletan, iharduera merkeenak 1.000 pezetako kostua izango du ikastaro osorako, eta garestienak, berriz, 2.700 pezeta.

Gazte eta helduei dagokienean, ikastaro merkeena 2.000 pezetakoa da eta garestiena, 7.000 pezetakoa.

Udarako kanpaina finantzatzeko, kuotaz gain, Udalak eta Aldundiak diru proportzio bera jartzen dute dirulaguntza modura.

Udarako kirol ikastaroak ekainaren 28an hasi eta uztailaren 30ean bukatuko dira. Bost aste hauetan zehar, ikastaroez gain, leku ezberdinetara irtenaldi edo txangoak ere antolatu dira. Irteera hauek astebukaeratan

Pinturas Elgoibar



Fermin

- Pinturak
- Enpapelatuak
- Gotelé
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g
(Anayak etxea)
Tel: 74 39 91

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK


Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

burutuko dira. Aktibitate enpresa bat hiru irteera hauetaz (Guarako mendiak, Urbasa zaldiz eta Sella ibaia piraguaz) arduratuko da eta materialea ere arduradunek jarriko dute.

Aurten, lehendabizikoz eskainiko den espeleologia saioan, Mendaro, Lastur, Sasiola eta Lekeitioko kobazuloetara irtenaldiak antolatu dira.

Iharduera hauezaz gain, berriak dira aurtengo udako kanpainan, Orienting-a, Voleibol-a eta gimnasia erritmikoa eta deportiboa haurrentzat, eta, espeleologia nagusientzat. Berriak diren iharduera hauek prezio merkean eskainiko dira jendea apuntatzera anima dadin.

Udako kanpaina hau, iazkoa bezain arrakastatsua izatea espero du Udal Kirol Zerbitzuak. Iaz 500 pertsona inguru aritu ziren uztai-lean zehar kirolen bat praktikatzen. Eskaini ziren kirol guztietatik, tenisa izan zen partaidetza handiena izan zuen iharduera. Ikasten aritu ziren 150 pertsonen artetik, 50, 18 urtetik gorakoak izan ziren eta, horietatik asko, emakumeak.



Ikastaroez gain, astebukaerretako irteerak denbora pasatzeko modu on bat dira.

UDARAKO KIROL ESKEINTZA

HAURRAK

IHARDUERA	PREZIOA
◆ Eskalada	1.500 pta.
◆ Patinak	1.500 pta.
◆ Tenis.....	1.500 pta.
◆ Igeriketa	1.500 pta.
◆ Wind Surf Piraguismoa Mountain Bike (Aixola/Eibar).....	2.700 pta.
◆ Buzeoa(Kiroldegian) ...	1.500 pta.
◆ Orienting	1.500 pta.
◆ Boleibola	1.000 pta.
◆ Gimnasia Erritmikoa/Deportiboa	1.000 pta.

GAZTEAK- HELDUAK

IHARDUERA	PREZIOA
◆ Tenisa.....	3.500 pta.
◆ Patinak	2.000 pta.
◆ Urbasa Zaldiz	7.000 pta.
◆ Sella ibaia piraguaz.....	7.000 pta.
◆ Kainoen Jeitsiera (Guara)	7.000 pta.
◆ Wind Surf Piraguismo Mountain Bike (Aixola/Eibar)	2.700 pta.
◆ Espeleologia	2.000 pta.
◆ Buzeoa (Kiroldegia).....	2.500 pta.

OIERKI ASZENSOREAK

Urrutira deitu gabe bertakook eta segiduan konponduko dizugu aszensorea

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

elgoibar

Non egiten dituzu erosketak?

Harritu egiten naiz, Hiper haundi horiek bazter guztietan sortzen ikusterakoan eta moda bat dela iruditzen zait, baina kontsekuentzia negatibo askorekin.



Alde batetik, multinazionalen eskuetan gelditzen gara eta lanpostu asko galtzen dira. Bestalde, merkataritxiak eskaintzen duen kalitatea eta zerbitzua ezinezkoa da hiperretan. Baina bizitza eboluzionatzen doan bezala askorentzat hiperrak soluzio bat dira, erosketak azkarrago egiten baitira

Neri ez zaizkit gustatzen. Egunean erositako produktuak, baserriarrek ekartzen dituzten berdurak, ordu batzuk lehenago moztutakoak, bertokoa...; okela erosterakoan, harakinak berak aukeratutako produktua, momentuan ebakita, arkumea edo txahala inguruan hazia edo EEETik ekarria... konfidantza ematen didate. Askoz eskurago daude merkataritxiak eta gaur egunean era guztietako dendak daude herrian, aukera handia eskainiz. Arropa, edo zapatak erosterakoan etxera eramanez ahal iza-

tea, erreklamazioak egin behar direnean edo aldaketak, askoz errazago da norberaren herrian egitea. Denda txiki batean arraroa da aglomerazioa egotea. Merkataritxi eta erosleen artean sortzen den konfidantza oso interesgarria da, gainera.

Askotan hiperretara joaterakoan, eskaintzak hartuaz diru asko aurreratzen dugula esaten dugu, eta horregatik joaten garela, baina ez dut uste horrela denik, eskaintzaz aparte beste edo zer gauza erosterakoan diru askoz gehiago gastatzen baitugu.

Zer izango litzateke herri bat denda txikirik gabe?

Dena den, merkataritxi txikia aurrera segitzeko erreziklatu egin beharko da, aurrerapen guztiak bezeroei eskainiaz. Bezeroen ohiturak aldatzen diren erara merkataritxiak egokitu beharko dira.

Mari Jose Estibariz



Hipermerkatua ala eta denda txiki baten aurrean aukeratu beharrean aurkituz gero, inolako zalantzarik gabe esango dut niretzako ez dagoela hipermerkatua bezalakorik.

Erosketak egiterako orduan, ez diet inolako alde negatiborik ikusten hipermerkatuei, abantailak baino:

Gaur egun, pertsona gehienok etxetik kanpo lan egiten dugu eta eguneroko erosketa, alde batera lagatzen ari garela uste dut, ez baitzaigu denbora gehiegirik gelditzen lan hauetarako.

Horretarako, askoz erosoagoa da autoa hartu eta hipermerkatu batetara joatea. Bertan, ez dugu pertsona baten zain egon behar eta produktuak banan banan eskatzen joan. Erosketak egiteko era egokiagoa iruditzen zait norberak bere kasa aukeratzea.

Hasteko, askoz atseginagoa da behar den guztia toki bakar batean edukitzea: arraina, haragia, fruta, garbikariak, jakiak, e.a.

Bestalde, produktu aukera ezinobea izaten da. Zenbat eta handiagoa izan hipermerkatua, aukera gehiago, noski. Marka eta etxe desberdin asko egoten dira, denen gusturako eta baita, denon poltsikorako ego-

kitzeko prezioekin ere.

Nahi beste begira ditzakezu erosi behar ditugun produktuak. Beste batzuekin konparatu eta prezio kalitate erlazio onena dutenak aukeratu. Normalean, prezioak beste dendetan baino bajuagoak izaten dira, nahiz eta etxe edo marka berdineko gauzak izan.

Gehienetan, hipermerkatuak toki handiak izaten dira eta ez da mugitzeko arazorik egoten; tokia dagoenez, erosketak erosoago egin ditzakegu.

Hasieran esandakoaren haritik, kontutan hartzekoa dela uste dut aparkaleku arazoa. Normalki, toki zabaletan kokatuak egoten dira eta autoa aste guztirako betetzera goazenean, ez daukagu gure ibilgailua uzteko problemarik.

Eta azkenik, oso garrantzitsua iruditzen zaidan gauza bat ordutegia da. Larunbatetan egun guztian zabalik egoten dira eta astean zehar ere, berandu arte daukagu zerbitzura.

Susana Azpilikueta

ETA ZURE USTEZ?

Non egiten dituzu erosketak?



Jose Sanchez
41 urte, ajustatzailea

Behar dudanaren arabera. Garbiketarako gauzak supermerkatuan erosten ditut eta janariak, denda txikietan. Kalitatea handiago da txikietan.



Gurutze Mugerza
23 urte, etxeoandrea

Supermerkatuetan elezio gehiago dago eta produktua merkeagoak dira. Kalitatea nerretzat berdina da denda handietan zein txikietan.



Arantxa Larrea
53 urte, etxeoandrea

Denda handietan egiten ditut erosketak. Askoz merkeago da eta aukera gehiago ematen dizute. Donostian ere ibiltzen naiz, denda txikietan.



Josefa Odria
62 urte, etxeoandrea

Dendia zenbat eta handi-xaua, aukera gehiago. Tarteka, ibiltzen naiz denda txikietan baina oso gutxi. Gehienetan supermerkatuan erosten dut.



Candelas Vicario
44 urte, etxeoandrea

Denda handietan aglomerazioa besterik ez da egoten eta genero guztia ikututa egoten da. Denda txikietan, ordea, badakizu genero ona dagoela.



Constan Nuñez
30 urte, kazetaria

Denda txikietan erostea nahiago dut. Tratua familiarragoa da eta kalitatea ere hobea. Supermerkatua ez zaizkit gustatzen. Jende gehiegi egoten da.

LANBROA

ORAIKO

EIBARBUS

- BIDAIA NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK
- ESKOLA ETA ENPRESETARA JOAN ETORRIAK
- TXANGOAK, ETAB.

Isasi, 20 behea
Tel: 70 16 20 - 11 17 33
Fax: 70 16 20 **EIBAR**

XAHEI BIDAIAK

TXEKIAR ERREPUBLIKA-ESLOBAKIA-BUDAPEST
93-8-1 / 93-8-1575.000 pta.

KORSIKA
93-8-16 / 93-8-31 79.000 pta.

MAROKO (Atlas + desertua)
93-9-1 / 93-9-1574.000 pta.
93-8-1 / 93-8-1574.000 pta.

* 17 lagunentzako autokarabanarekin goaz, litera, sukalde eta guzti.
* Bizikleta eta piraguak eramango ditugu, mendiko trabetesia bat ere egingo dugu oinez.
* Informazio gehiago: 74 02 99 bulego orduetan.
(94) 613 40 75 gauean (Adrian).

Hauteskunde orokorretako emaitzak eskolaka

Elgoibar

	EAJ	HB	PSE*-EE	EA*-EUE	EE	PP	IU
	89 93	89 93	89 93	89 93	89 93	89 93	89 93
Agirre	740 / 776	494 / 493	414 / 450	389 / 391	244 / -	163 / 234	33 / 100
Zahar. Bi	285 / 219	103 / 87	80 / 93	96 / 81	66 / -	25 / 48	1 / 8
Muguruza	287 / 327	229 / 198	310 / 287	155 / 113	127 / -	50 / 145	10 / 59
San Roke	369 / 428	170 / 172	175 / 197	219 / 251	127 / -	41 / 106	12 / 23
Urasandi	117 / 183	146 / 156	265 / 286	49 / 75	120 / -	30 / 79	15 / 46
Sta Klara	114 / 123	31 / 35	0 / 6	45 / 40	14 / -	0 / 4	0 / 0
Altzola	57 / 57	49 / 53	37 / 34	26 / 17	7 / -	6 / 17	2 / 7
GUZTIRA	1.969/2.114	1.222/1.194	1.281/1.353	979/968	705/-	315/633	73/243

* 1989ko emaitzak PSEk eta EAK bakarka lortutakoak dira.

Zentsua 1993: 9.436

Botu emaleak: 6.759

Abstentzioa: % 28,37

JAUREGI

INPRIMATEGIA



KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

IBAI GIMNASIOA



JUDO - KARATEA - TAEKWONDOA - GIMNASIA - GIHARKETA

Manu Mora (Kirol Hezkuntzan lizentziaduna) Santa Ana 46 Tel.: 74 07 93

Institutuko lau ikaslek ingelesa ikasteko beka eskuratu dute

Elgoibarko Batxiller Institutuko 3. mailako Mikel Carrillok eta Laura Mendezek eta, UBIko Kati Martinek eta Leire Herrerok, Eusko Jaurlaritzak atzerrian ingelesa ikasteko urtero ematen duen beka lortu dute. Hilabeteko iraupena duen beka honi esker, Institutuko lau ikasleek, ingelesa ikasteko ikastaroa, bidaia eta egonaldia doan izango dute. Beka lortzeko eskatzen ziren baldintzak, nota onak izatea eta bekadun izatea ziren. Gastu pertsonalak,

ordea, beraien poltsikotik ordaindu beharko dituzte. Katik, Laurak eta Leirek hilabete pasatuko dute EE-BBetan eta Mikelek, ordea, Britainia Handia aukeratu du ingelesa ikasteko. Argazkian, Mikel eta Laura zutik eta hauen aurrean, Leire eta Kati. Zorionak lauroi!



Txankakuaren zozketako zenbaki sarituak

Honoko hauek izan dira Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak, Udaberri-Uda kanpian egindako zozketan sarituak atera diren zenbakiak:

63.170, 36.473, 08.153
11.497, 66.548, 80.723

Sariak 35.000 pezetako eros-txekeak dira, Txankakua elkartearen barruan dauden herriko dendetan gastatu ahal izango direnak. Sariak ekainaren 24an banatuko dira Kultur Etxean.

Giza zerbitzuak bultzatzeko Euskadi sariak

Giza-zerbitzuen sustapenerako Euskadi Sarien oinarriak Udaletxean eskuragai daude parte hartu nahi duen guztiarentzat. Arloak honoko hauek dira: Argazkilaritza, kazetaritza, irratigintza, ikusentzuteko komunikabideak, ikerkuntza eta "Sustatu Sari berezia".



KENSINGTON

UZTAILEAN GOGOR EGIN INGLESA ETA FRANTZESARI Matrikulazio epea zabalik daukazu !

Mailak:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
Sarrerako azterketaren arabera.

Taldeak:

- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara)
- Literatura,
- Errekuperazioak,
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

Iraupena:

A - Ordu bete egunero (22 ordu)

B - Bi ordu egunero (44 ordu)

Hiru egun dohainik izango dituzu.

Ordutegia: Eskaren arabera.

Adina: Adin guztiak.




GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

P. E.T. centre ES 406
P. Muguruza 8. Tel.: 74 02 36

TRINITATE JAIAK

Aparteko jai giroa izan dugu Trinitate jaietako astebukaeran. Jai egitarauaren barruan iragarritako ekintza guztietan jendearen partaidetza handia izan da. Nahi zuenak, izan du non dibertitu.

Ostiral gauean, BAP eta EHUN KILO rock talde- en jardunak Maalako parkea jendez betetzea lortu zuen.



Haurren tanborradak herriko kaleak zeharkatu zituen Udal Musika Bandaren laguntzaz. Tanborradako doinu ezaguna eta tanbor hotsak larunbat arratsaldeko egitarauaren ekintza nagusia izan ziren.

Eguraldi kaxkarra zela eta, jende gutxi urreratu zen Plaza handira Lagun Taldeak antolatu zuen Ginkana ikustera. Ondoren, eguraldia hobetuz joan zen heinean, joku eskolarren sari banaketa egin zen. Arratsaldean, Deba Arroko XLVI. pelota txapelketaren finalak ikusteko aukera izan genuen Ikastolako frontoian.



Musikarekin bukatu zen larunbat gaueko jai egitaraua. Beste askorentzat, ordea, goizalderarte luzatu zen jai. "Golden Apple Quartet" talde ezagunak, umore eta ondo kantatzearen arteko konbinazioa erakutsi zuen Plaza handian. Urtero bezala, arrakasta handia izan du "a capela" abesten duen Debako musika talde honek.



Aretxa gazeta

ARRASATE
PRESS

BERNARD GARA

el guri BARREN

ERAZ

...eta kitto!

Herri aldizkarien gehigarri berezia




Euskal Bizikleta 93

50 urte betetzen ditu Eibarko karrerak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Jose Antonio Azpilikuetak, 50garren urteurrena ospatzeko egindako txartela.

Euskal Bizikleta 93, erronka berri bat.


Chioccioli, Fignon, Zulle, Ugrumov, Breukink, Madiot, Cabestany, Delgado, Bernard, Gorospe, Cubino, Mauri, Etxabe, Gaston, Ivanov, Chozas edo Rooks bezalako izen ezagunak Eibarko irteeran eta akaso bertan izango dira Bugno eta Argentin ere, Txirrindulari profesionalen tropeleko hamabost taldeko partaide. 70 miliotako aurrekontua. 882 kilometro bost etapetan banatuta, 3. mailako 9 mendate, 2. mailako 6 eta 1. mailako 3; artean, Azurki gainaren nobedadea, bide estua eta aldapa gogorra, hirugarren etapako helmugatik 45 kilometrotara. Bada nobedade gehiago: tropela Bilbon sartzeko erronkari aurre egitea lehen etapen, Euskal Bizikleta lehen aldiz Nafarroara eramatea bigarrenetan, azken etapa, eskuz-eskuzko pilota finala medio, arratsalde burutu behar izatea, edo Arraten irabazten duen txirrindulariari 500.000 pztako. sari berezia ematea.

Beraz, erronka berriei aurre eginez dator aurtengo Euskal Bizikleta, **50. URTEURRENA** betetzen duen lasterketa. Urtebetzea kontuan hartuta, antolatzaileek, txirrindulari hauen ahaleginaz aparte, gozagarri gehiago prestatu dituzte zale-tuentzat: argazki eta txirindu erakusketa Eibarko Udaletxean, txirrindularitzari buruzko hitzaldiak, Arraten irabazle izan diren gizon askoren bisita... eta Arrateko igoeraren historia jasotzen duen liburuaren argitaratzea Gabonak alderako. Eta, dirudienez, hurrengo urteetan bide beretik jarraitu nahi dute, ia ziurtzat ematen baita datoren urtean etapa bat Iparraldean bukatzea, Miarrizzen hain zuzen ere.


Ekainaren 16tik 20ra Eibarren txirinduaz hitz egingo da, eta ez Eibarren bakarrik, ETBren lanari esker, euskaldun askok etxetik edo auzoko tabernatik errepide ondotik bezain bizi ikusiko du txirrindularien ahalegina.

Onenak irabaz dezala!


1. Etapa




2. Etapa




3. Etapa



4. Etapa



5. Etapa



Argitaratzaileak: Aretxagazeta, Arrasate Press, Berrigara, Elgoibarren, Eraz, ...eta kitto! herri aldizkariak
 Erredaktoreak: Beñardo Kortabarria, Jose Luis Gorostegi.
 Maketatzailea: Jose Luis Gorostegi.
 Inprimategia: Gertu Koop. (Oñati).

Julian eta Mikel: oraina eta geroa

— Julian, 12 urte profesionalen artean, gauzak asko aldatu dira denbora horretan?

— Teknologiari dagokionez aldaketa handiak egon dira, baina bestela ez. Orain urte batzuk baino interes handiagoak daude, publizitateak gero eta garrantzi handiagoa dauka, telebista sartu da... baina oinarrian ez da aldaketa nabarmenik. Taldeetako aurrekontuek gorantz egin dute eta krisia hortxe igartzen da, orain ez baita posible etxe txiki batek, garai bateko Reynolds edo BHK esaterako, talde bat atertztea.

— **Telebista dela eta txirrindulariak pertsona ezagun bihurtu zarete, nola daramazue famaren presioa?**

Julian — Beno, nik urte asko daramatzat mundu honetan eta dagoeneko telebista edo prentsak dionak ez nau gehiegi arduratzen; Zarrak, berriz, zailtasunak izango ditu seguruen. Euskal txirrindularitzan oso garai ona bizi izan dugu, baina orain ematen du hutsune bat dagoela, eta badirudi bera izan daitekeela hutsune hori

bete dezakeen pertsona. Argi dago, zaletuek gogo hori dutela eta horregatik oso entzuna bihurtzen ari da Mikelen izena. Zarra gaztea da eta oso kualitate onak ditu, beraz gauzak lasai hartu eta jendeak esaten duenari kasurik ez egin, nik behintzat hori gomendatuko nioke.

Mikel — Arduraren antzeko zerbait sentitzen dut, baina paso egiten saiatzen naiz, jendeak dionaz ahazten. Eguneroko lana egin eta kitto, besterik ez. Baina ez da erraza, jendeak beti gehiago nahi duelako.

— **Euskal Bizikleta?**

J. — Asko aldatu da, orain itzuli modura antolatzen da eta normalean desgastea igartzen da egun batetik bestera. Era zaharrean, bi aldiz korritu dut bakarrik, eta ez zitzaidan ondoegi joan, Arroyo eta A. Fernandezek irabazi zuten.

M. — Niretzat egokiagoa da lasterketa orain dagoen moduan eta ez era zaharrean. Nahiz eta erlojuaren aurkako lasterketetan gaizki moldatu ez, zerbait gaxagoa nahi dut. Edozein modutan, uste dut Girotik datozenen artetik



Txirrindulari ez ezik, lagun ere bai.

irtengo dela irabazlea, forma onean datozelako maila handiko txirrindulariak.

— **Parte hartzeko asmorik?**

J. — Ez dakit ziurtasunez, baina normalena litzateke.

M. — Espainiako itzulia bukatuta, Minguezek bi hilabete t'erdiko atsedenaldia eman dit, ondorioz ez dirudi Ordiziako klasikararte beste lasterketarik egingo dudarik. Dena dela, badakit antolatzaileek ni eraman nahi nautela eta presio lana egiten ari direla eta egingo dutela Amaya taldearen aurrean, baina printzipioz ez noa, gero azkenean ikusi egin behar.

— **Mikelek Espainiako itzulia aipatu du, balorazio ona egiten duzue?**

J. — Talde moduan ez dut uste Banestorentzat itzuli ona izan

zenik; pertsonalki nahiko ondo ibili naiz, neure mailan. Mikel ikusi nuen ondo, lehen buelta izateko beti ibili da aurrean, esperientzia apur bategaz gorago egongo zen.


M. — Beti ez naiz ibili aurrean eh! Julian nola ikusi dudan? ba...

J. — Nola ikusiko ninduen ba? beti atzean!

— **Aizue, asko hitzegiten ari da Euskadi Fundazioaz, Gorospe zuzendari, Zarrabeitia lider...**

J. — Ez dakit Euskadi Fundazioarenak aurrera egingo duen ala ez. Dena dela, niri dagokidanez, oraindik beste urtebete bizikleta gainean egiteko asmoa daukat. Ekipo berri bat egiteko, ekipo ona noski, fetxa hauetarako gauza gehienak eginda egon beharko liriateke.

Kafetegia
Taberna



- Pizzeria
- Plater konbinatuak
- Sandwichak
- Hanburgesak

Berandu samar dabilzala uste dut.

M.— Horri buruz egin dute berba nirekin, baina berba bakarrik, gehiago ez. Momentuz, Amaya taldean oso gustora nago, ikusi egin behar taldeak jarraituko duen edo ez, baina momentuz ez daukat aldatzeko asmorik.

J.— Ekipo guztiek kontratatu nahi dute Zarra eta berarentzat hobe izango litzateke talde indartsu batean egotea. Jendearen aldetik, normala da Zarra Euskadiko taldean ikusi nahi izatea, baina berarentzat talde berri eta ezezagunean sartzea arriskutsua da, gaztea da oraindik eta horrelako taldean berak egin beharko luke guztia eta ardura osoa hartu.

— **Eta euskal txirrindularitzaren etorkizunaz, zer diotazue?**

J.— Pazientzia behar da jende berria iritzeko, boladak daude eta. Tropelean gauden gehienok, orain 10-12 urteko txirrindulariak gara. Banaka batzuk pasa dira beranduago eta polito dabilza. Urtetik urtera aldatzen dira gauzak, osasunak laguntzen duen edo ez, suertea, istripuak... gorabehera asko daude. Momentuz hor dago Indurain eta baliteke hemendik gutxira Zarra edo Garmendia ere hor izatea.

M.— Bai egia da, suertea behar da urte batean bai eta bestean ere ondo ibiltzeko.

Kasu nabarmenak gertatu dira, azkena Lazpiurrena, esperantza handia da, baina osasunak ez dio batere laguntzen.

— **Txirrindularitza ikuski-zun bilakatu da, nola ikusten duzue kazetarien lana?**

J.— Giroan nahiko ondo ari dira, eta komentarioak ere ez dira txarrak, nahiz eta idearik ez daukan bat tartean ibili. Espainiako itzuliko telebistako komentariak oso txarrak ziren, gero eta gutxiago gusztatzen zaizkit, huts ugari egiten dute. Futbolearen egiten duten bezala, laguntzeko ulertzen duen norbait eraman beharko lukete.

— **Eta zaletuekin zer moduz?**

J.— Pasatu egiten dira. Alde batetik ulertzeko da, gu igaro baino 3 edo 4 ordu lehenago joaten baitira, bokadiloaz... aurrez telebistako komentarioak entzunda edo egunkariko deklarazioak irakurrita joaten dira... berotuta egoten dira gu iristen garenerako.

M.— Askotan lagundu barik traba egiten dute, aldamenen jarri, ura bota burutik behera, bidea estutu, ikurrinak edo pankartak aurpegian jarri, kolpeak eman... animatzea polita da, baina ez horrela. Jendea errepide bazterrean egon beharko litzateke edo muga gainetan eta bertatik animatu, zaletuen ohiuek benetan animatzen dute eta.

Lekukoa pasa eta hartzeko ordua



Batek 33 urte, besteak 23. Bat oraina izan den joanaldia da, bestea oraina den etorkizuna. Julian Gorospe bat, bestea Mikel Zarrabeitia.

Edonori gustatuko litzaioke, euskaldunon idoloa izatea, baina edonork ez du aukera hori. Deituak gutxi dira, baina Mikelek, aukera bakarrik ez: Mikel izan daiteke eta jadanik, da.

Julian azken ostikadak ematen ari da eta luzaroan gure ametsak egia bihurtu zorian izan gaituenak, laster, agur esango digu. Gure zorionerako, hor dugu bien bitartean ate joka Mikel Zarrabeitia.

Julian Gorospe kirolari handi bat da. Maiz erakutsi digu, ondo baino hobeto dakie-la irabazten eta galtzen. Batzutan bera izan da "leader"; guztiok aho zabalik utzi gaitu, batez ere, bakar-bakarrik, erlojua eta norbera direnean etsaiak, lasterketa handiak eginez. Lasterketak nonahi irabazi ditu, palmarek aparta du, agian bere karrerari ohorezko matrikula emateko itzuli handi bat menperatzea falta izan zaio, baina ordainetan, txintik ere atera gabe, Kixote handientzat, Santxo Panzarik onena bera izan da. Eginbehar hori edonork ez du onartzen; dena izan denari ezinezkoa zaio, baina Juliani ez. Oso bikain!

Mikelentzat irakasle eta eredu on bat da Julian, hala ere, bide ona hartu duela ezin uka. Iaz Errioxako itzulia irabazi zuen, bere lehen itzuli handian, aurten 12. amaitu du, taldearentzat txapela kentzeko moduko lana egin ondoren. Hasi da, orain jarraipena behar du. Bidea urratsez urrats egiten da, eta lehenengoak kolore ona dute, txapeldunen kolorea. Ez dadila ajatu.

Arritxu Iribar.

HOGEI

Tfno. 12 10 19
Bittor Sarasketa, 7 - EIBAR

Autoberezi


Tfno. 76 62 10
Bº. Antigua, s/n - BERGARA-ANTZUOLA

KANPAZAR

Tfno. 79 41 98
Avda. Bizkaia, s/n - ARRASATE

FIAT

TIPO BERRIA. SEGURITATERAKO SORTUA.



TIPO BERRIA. 3 ETA 5 ATE.

Euskal Bizikleta, 50 urte sasoi betean

Berrogeitamar urte. Ez dira inorentzat eta ezerentzat alperrik pasatzen eta horregatik, 1941. urtean antolatu zen lehen Arrateko igoerak ia ez du zerikusirik gaur eguneko Euskal Bizikletarekin, antolatzaileek gauzak ondo egitearren eta txirrindulariek garaipena eskuratzearren erakusten duten ahalegina ez bada behintzat.

Arrateko igoeraren sorrera Klub Deportiboaren baitan kokatzen da, urtero Arraten burutzen zen finalista-egunean hain zuzen ere. Finalista-eguna urtean zehar ehun mendi baino gehiago igotakoei omenaldia eskaintzeko egiten zen. Sari-banaketa soila pobre samarra zenez, eguna girotzeko bizikleta igoera antolatzea pentsatu zuten, Arantzazurako igoera erreferentziatzat hartuta. 1941. urtean antolatu zen lehen aldiz, eta kategoriarik gabeko txirrindulari-lasterketa zen, behe mailakoa. Maila txikiko lasterketa izanda ere, zenbait arazo gainditu behar izan ziren lehen igoera hura burutzeko. Gerra bukatu berria eta gasolina premia zegoenez jai-egunetan ez zuten uzten autorik erabiltzen; bestalde, jende-konzentrazioak ere, debekatuta zeuden. Ondorioz, Arrateko lehen igoerako bezperan oraindik ez zegoen karrera burutzeko baimenik,



Anton Barrutia Uzartza gainean 1955. urtean.

azkenean lortu bazen ere.

Txokoren agerpena

Arrateko historiaren hurrengo data erabakiorra 1944. urtea da, Juanito Gisa-sola "Txoko" antolatzaileen batzordean sartu zen urtea. Juanito "Txoko"k lasterketaren filosofia aldatu zuen, orduarteko maila txikiko frogari, poliki-poliki maila handia eman behar zitzaiola uste baitzuen. Goi-mailako froga bihurtzeko lehen urratsa, txirrindulariak gonbidatzea izan zen; horrela, irteeran txirrindulari gutxi baina onak biltzen ziren. Behin baino gehiagotan gertatu zen gonbidatu gabeko txirrindulariren bat agertzea

ere, eta ez zitzaion trabarik jarri, baina printzipioz lasterketan bakarrik gonbidatuek har zezaketen parte.

Poliki-poliki eibartarren txirrindulari-froga indarra eta fama hartuz joan zen. 1955-56 urteen inguruan, berebiziko interesa hartu zuen lasterketak, Loroño-Bahamontes norgehiagokak pil-pilean zeudela. Kontuan hartu behar da Eibarren etorkin ugari zegoela eta ondorioz, izugarritzko pikeak sortu ziren bizkaitarra eta toledarraren aldekoen artean, lasterketarekiko ikusmin paregabea sortaraziz.

Anquetilen etorrera

Behetik gorako bide luzean,

duda barik, urterik garrantzitsuen 1963. urtea izan zen, Jacques Anquetil frantziarra lehen aldiz etorri zen urtea. Garai hartan, Anquetil zen tropeleko nagusia, munduko txirrindulari onena, eta bera ona ekartzeak sekula galduko ez zuten maila gorena eman zion Arrateko igoerari. Ez zen bate-re erraza izan Anquetil frantziarra Eibarrera ekartzea, Juanito "Txoko"ren lorpen ikaragarria izan zen. Frantziarra joan eta Anquetilen managerraz hitz egin zuen; bai alperrik, Juanitok ezezko borobila jaso zuen eta. Ez zuten horregatik eibartarrak umorea galdu eta kokildu barik, Anquetilengana jo zuen. Eibartarra, kon-



Olakua 16
Tel. 78 29 86

OÑATI

tratoa besapean hartuta, gustora itzuli zen herrira. Dena eginda zegoela zirudien, baina tartean Anquetilek Paris-Roubaix eta Paris-Niza klasikak irabazi zituen, eta Milan-San Remo Eibarko lasterketaren egun berean zenez, italiarrek hara eraman nahi zuten. Laster iritsi zitzaion Espainiako Federakuntzaren agindua Juanitori, kontratua apurtzeko. Juanitok ez zuen kasurik egin eta lasterketa baino 2-3 egun lehenago, Anquetilek deitu eizion, bere hemen ez egoteko presiorik jaso ote zuen galdezka eta lasai egoteko esanez. Lasterketa egunean hemen zen, baita ondorengo hiru urtetan ere. Ordutik, Eibarko lasterketa, "Arrateko igoera", "Eibarresa" edo "Euskal Bizikleta" izenarekin, beti txirrindu-munduaren gailurrean egonda. Jesus Loroño, Bahamontes, Antón Barrutia, Poulidor, Ocaña, Gimondi, Bobet, Kunde, Lejarreta, Alberto Fernandez, Bugno, Chioccioli... osa ezina izango litzateke txirrinulari onenen zerrenda. Azken berrogeitamar urtetan txirrinularitza zerbait izan diren guztiak Arraten egon dira; bat izan ezik, Eddy Merckx belgiarra, nahiz eta ahalegin ugari egin hura ekartzeko... hori eta hiru urtetan ez burutu izana, izango dira seguruen berrogeitamar urte bete dituen lasterketa honen huts bakarrak.



Anquetil 1965. urtean

Eibarko txirrinularitzari buruzko liburua martxan

Gabonak aurretik kalean izango da "Eibarko bizikleta eta ziklismoaren historia" jasoko duen liburua. Liburu mardula izango da, 250 orrialdeetako gutxi gorabehera, formato handian eta argazki ugariz osatuta; bertan Eibarren 1910. urtean hasi eta gaur egunera arte gertatu diren industri-aurrerapausuak, bitxikeriak, kirol-emaizak etab.

Testuaren gehiengoa euskaraz irakurtzeko aukera izango den arren, pertsonaien nazio-

nalitatea kontuan hartuta, gaztelaraz eta frantseseraz egindako elkarrizketak ere sartu dituzte. Ulertzen ez dutenez, horrelako elkarrizketen bukaeran testotxo bat emango da euskaraz, laburpen gisa.

Kaleratzeko asmoa dagoen liburuaren 3.000 aleek argia Gabonak aurretik ikus dezaten jo ta ke lanean ari direnak, honako hauek: Begoña Azpiri, Juanjo Sebastian, Jose Arambarri, Antton Gutierrez eta Luis Mari Atxa.

Kategoriako lasterketa

Txirrinulari-lasterketa interesgarria dugu berriz ere begibistan. Eibartarrek ikuskizun handi berri bat prestatu digute, eta gainera aurreko Arrateko igoeraren berrogeitamargarren urteurrena betetzen da. Zita gutxi dute honelako historiari. Duda barik, ausardia eta antolatze gaitasuna duen jendeak lor dezakeen efemeride baten aurrean gaude. Valenziaga, Txoko, Sarasua... herriaren gogoia eta nahia zein zen igarri eta erraztasun handiko txirrinulari proba antolatzeko gaitasuna izan duen taldea. Historikoki, Arrateko maldek txirrinulariaren munduko izen garrantzitsuak ezagutu dituzte. Bahamontes-ek behin eta berriz errepikatu zuen, bost garaipen lortu arte. Baina ez berak bakarrik, Eibar eta inguruetako zaletuek Anquetil, Poulidor, Gaul, Bobet, Loroño, Ocaña, Julio Jimenez, Marino Lejarreta eta beste askoren lana miresteko aukera izan dute, maldak igotzeko erraztasuna aprobetxatuz Arratera hanka eginda iristeko gaitasuna izan duen jendea. Edozein modutan, aurtengoa zita berezia izango da. Arraten irabazi duten asko hemen izango dira, eta beraiekin txirrinularitzaren urte berezi haiek gogoratuko ditugu, aldaketak medio, gaur egungo txirrinularitzaren antz handirik ez duten urte haiek; nahiz eta oraindik txirrindu gainean aurrera egiteko ezinbestekoa izan pedalei eragitea. Arratek guztion laguntza merezi du, edizio berezi hau behar bezala ospatzeko. Gure artean jende berezia izango da eta txirrinularitzaren munduko onetsuenak bertako errepideetan ibiliko dira, berez aurrera doan lasterketa batean parte hartuz. Arrate, munduko lasterketa onenen artean daukate guztiak, eta datei dagokionez ezin hobeto kokatuta dago, Tourra hasteko egun gutxi batzuk besterik gelditzen ez direnean. Eibarrek onena du, baina merezi duelako!

Tito Irazusta.


GERTU INPRIMATEGIA

- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Era guztietako inprimakiak

Zubillaga Industrialdea 9. OÑATI Tfnoa: (943) 78 33 09



Rostellan ta Anquetil 1964ko Arrateko igoeria ekiterakuan.



Poblet Ipuruako belodromuan jentia agurtzen, 1965an.



Postulaziñoko karabania 1965an.



Charli Gaul 1965ko kontrarelojaren urteeran.

Juanito Gisasola "Txoko"

"Zeozer eukiko jua karrera honek Anquetil lau urte errezkadan etortzeko"

Eibarko Ibarkurutzeko kalia jaixotako Juanito askotan ibilli da Untzagan, kioskua dauan lekuan, bizikleta gaiñian malabarismoak eitten. Baita Hendaian irabazi ere, behiñ. Motorrian, bestalde, 21 urte egin ditu: Komisario lanetan jardun izan dau 9 bider Espaiñako Bueltan, 3 bider Frantziako Tourrean ta baita Luxenburg ta Marokkon.

Amuategi Batalloian egondako gizon honek 31 urte emon ditu Arrateko Igoeria eratzen. Horretaz aparte, 5 urtetan zihar C.D.Eibar-ko lehendakarixa izan zan. Beste 5 Dianan, Ehiza ta Arrantza Elkartian. Estatu maillan ziklo-krosseko Batzordeko lehendakarixa ere izan zan 6 urtetan. Aurten jasoko daben omenaldixa, hainbeste denboran egindako lana eskertzeko modu bat besterik ez-ta.

Eratzaile moduan ekin zenetsanian, irabazliak 50 duro kobratzen zittuan. Zurekin 500 pezeta kobratzera pasatu zan. Zelan emon zan hori aldaketiori?

Leku guztixetan eskian, hasi taillarretik, ia ehun bisitatzen nittuan, tabernetatik jarraitu ta Coca-Cola enpresa be bai. Diputaziñuan be mundu guztixari tabarria emoten. Kontu eiñ publizidade etxiak diru gitxi jartzen zebela ta txirrindularixak eruaten zeben propagandia oso merkia zala.

Nondik lortu eban karrieriak hainbesterako izena?

Bizittasuna emotia nahi izan netsan. Horretarako, Frantzian egiten ziran karrera bittan konturatu nitzan: Mont Farom eta Mont Agel, antzerako zeozer hamen eitteko. Gero, batez be Bahamontes eta Loroñokin ta, jakina, bahamontisten eta loroñisten arteko pikiekin.

Jean Dotto ta Valentin Huot-ek atzerritarren bidia zabaldu zeben; ta Anquetillek jarraitu. Ez zan erreza hori ekartzia izango, ezta?

Anquetillen aurretik Louison Bobet-en bisittia izan genduan.


Horrek be hiru bider Tourra irabazitta zekanez, jentiak ez zeban siñisten ona etorriko zanik. Baina hamen egon zan.

Anquetillen kasuan, lelen-go managerrangana jo neban ta horrek 25 milla duro eskatu estazan. Gero txirrindularian etxera jua ta berak 5 mila durotan laga eskun. Ondiokan

"Bahamontesek Kas-ian korrittu jua, nahiz ta askok siñistu ez"

be goguan dakat Galerias Preciados aurrian eiñ zeskun harrera. Detalle politta izan zeban gurekin karrera amaittu ta gero: ikusi zebanian zelan geniharduen batutako dirua kontatzen, 7 mila pezeta laga eskuzen "txanpaina erateko". Orditik aurrera, federaziñuak fetxia emon, etxera deittu ta segiduan hartzen zeban konpromisua.

Kontratuetan alde haundixa euan?



Puruaz egin zan Juanito ospeduna. "¡Qué bien vive Juanito el del Txoko, cuando va con el puro en la moto!" kantatzen zetsen askotan.

Gaur egun be holan izaten da. Anquetil ta Gimondik 100 mila pezeta kobratu zeben, Poulidor, Bobet eta Janssenek 90, Gaul-ek 65 ta Aimar-ek 60. Bahamontes-ek 35 milla ta Loroñok 20. Gehixen kobratu zebana Ocaña izan zan, Tourra irabazi ostian: 125 milla pezeta. Kas taldiak 90

milla kobratzen zittuan, La Casera-k 75 ta Karp-k 50 milla. Ez ahaztu guztira 26 edo 28 zirala parte hartzen zebenak, lelen-go maillakuak ta gonbittiakin kasu guztixetan

Egixa da 50 milla lagun batzen zirala karrera ikusteko?

Gatxa da zifra bat emotia. Baña karreterea moztu ta karrera ez zala aterako amenazua jo genduan behin.

Egunkari asko ta irrati guztixak etortzen ziran. NODOan ataratzen zeben ta Marca, Dicen, L'Equipe ta Santanderko Alertak orrixak ta orrixak kaleratzen zeben.

Zeintzuk dira orduko ta gaurko karreren arteko desberdintasun nausixenak?

Lelengua, publizidadian indarra. Txirrindularitzan, gañera, foballian baño indar gehixao dauka, telebisiñuak publizidadia enfokatzen dabelako. Lehen eskale moduan ibiltzen ziran askotan. Galerak esate baterako, bi milla pezeta eskatu zittuan ta gero irabazi. Dirua beti da edarra ta orduan gehixau. Bahamontes be hor ibilli zan Kas-en representantia moduan Toledon hillabete batzuetan ta nahizta jentiak jakin ez arren, proba batzuk korrittu zittuan maillot horixakin..

Janarixetan be alde haundixa dago. Zer esanik ez, medikuekin. Badakizu zer dan txirrindulari batendako benetan kaltegarria? Biñagria, odola mehetu eitten dabelako.

Zelan jarraitzen dozu gaur egunian txirrindularitza?

Auto barruan joan ezkerio, beti sufritzen. "Horrek zer eitten dau, traban!" ta holakuak burutik kendu ezinik. Horregaittik nahixau dot ez joatia. Hogeï urte gutxiagokin motuan ibiliko nintzateke.

Normalian telebisiñotik jarraitzen dot. Baña Tele 5-n eitten dabena ezin da eiñ, kilometro bat falta danian moztu. Zer da hori? Gero esaten detsuete: "Hanka eiñda joiak". Bai, baña noiz? Ni askotan Alemaniako telebisiñora pasatzen naiz holakue-tan. ETBk, ostera, bihar dan moduan ematen dau. Ikusten da karrierari beste zentzu bat hartzen detsala.

Euskadi Fundazioa, zaletasuna sponsor paperean

Fundazioko Karta eginda dago jadanik. Bertan, bere estatuto eta Arautegiak azaltzen dira, Gestora batek sinatuta. Eta urrats honekin, aurrera jotzeko gogoia erakutsi dute proiektua ateratzeko sortutako komisioko partaideak. Jaime Ugarte, Euskadiko Federazioko lehendakariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lehendakariak eta txirrindularitza munduko beste zortzi lagunek osatuko dute Fundazioaren Direktiba. Idazkaria eta diruzaina ere izango dira Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatuak, aurkeztu zuen ideiarene fase honetan.

Julian Eraso, Euskal Bizikletaren antolatzaileetarikoa bat eta Komisioko partaidea denak dioskenez "hamasei mila lagun apuntatu dira dagoeneko eta Sistemas Europeos de Comunicación enpresak Bizkaian burutu dituen inkestaren arabera, bakarrik % 10ak egingo du atzera. Bost mila inkesta egin dira eta guztiak pertsonalak".

"Ez baditugu 250 milioi

Hamasei
mila dira
izena eman
dutenak orain
arte.

lortzen ezingo dugu aurrera egin" gaineratu digu. "Gauzak legalizatuz joan behar dira, gero jendea dirua eskatzeko. Hori bai, nahikoa ez bada ateratzen, diru hori bueltatu egingo da. Porrot egin dugula errekonoizitu eta kitto!". Horregatik, zabalduko den kontu korrontea blokeatu egin



Euskadirene presentzia ez da arraroa txirrindularitzan.

go da, dirua sartu bai baina atera ezingo da egin.

Jendeak nahi badu, ekipo

Datorren urtean ekingo dio ekipoak bere errepedeko bizitzari. Urte bukaerarako prestatu eta bideetara ateratzeko asmoak daude. Talde teknikoak osatu eta profesionalen ekipoa eratuko da, Athletic-aren bideari jarraituz. Txirrindulariak hemengoak edo hemen aritutakoak izango dira: "Ez da elitekoa izango. Pare bat, hiru, lau profesional on fitxatuko dira, erdipurdika dabilen beste hiru edo lau, gazteak hauek eta afizionatutik igoko diren beste batzuk egongo dira. Hasieran, beraz, ekipo apala izango da", Erasoren eritziz.

Dena den, jendeak erantzuten duen araberako ekipoa izango da "Euskadi" izena paseatuko duen taldea. Hori da behintzat Fundazioaren filosofia. "Txirrindulari bat hemen formatu eta proiektatzen bada, askoz hobeto. Ateak zabalik edukiko ditu" dio Erasok.

Dozena erdi maillot prest

Euskadi Fundazioa taldeetik pasatutako txirrindulari, mekaniko eta zuzendari lagunduko die. "Fondo social" edo antzerako zerbait sortuko da euren babeserako, edozer

gauza dela eta horren beharra izaten badute. Kirola bultzatzea, batez ere afizionatu mailan, du Fundazioak helburu gisa eta Euskadiko Txirrindulari Elkarteak sortzeko asmoa ere.

Gutxienez
250 milioi
pezeta behar
dira zozertan
hasteko.

Erasoren esanetan, "enpresa asko ari dira gurekin lanean. Visa txartelarekin karneta ateratzeko ideia ere hor dago, bidaia agentziak prest daude kolaboratzeko eta horrela beste asko".

Maillotaz ere pentsatu dute eta dozena erdi proposamen jaso. Jakina, ikurriñaren hiru koloreak erabiliz. Gaurko diseinuak eta EUSKADI izenarekin konbinatuz.

Hemendik egun batzutura badirudi zenbait berri helduko zaigula. Ea onerako den!

Euskadi Fundazioa

Euskadi Fundazioak hainbat zeresan eman du azken hilabeteotan. Praderak botatako asmoa gorputza hartzen joan da inork uste baino azkarrago eta ezereen okerririk ez bada, tropel profesionalak talde berria izango du datorren urtean, 1994.ean. Aldeko jarreraren ondoan kontrakoak agertu dira; batek baino gehiagok esan du Euskal Herriak arazo grabeagoak dauzkala eta euskaldunok horretarako dirua ematea astakeria bat litzatekeela.

Oraindik ere Fundazioaren arduradunek ez dute azaldu taldea nolakoa izango dugun, zeintzuk osatuko duten, bai txirrindulariak, zuzendariak, masaje emaileak... Zain gaude.

Krisialdi ekonomikoak jota gauzkan sasoi honetan, euskal talde profesionalaren premia larria ere ikusten dut. Praderak talde mastodontiko bat aitatzen zuen, euskal txirrindulari onenekin, baina ni beste era bateko ekipo baten aldekoa naiz, mundu horretan bai sartzeko eta bai aurrera egiteko geroz eta arazo gehiago dauzkaten gazteei irtenbidea emango dien taldearen alde. Filosofia berri batekin, egitura berri batekin, ohizko talde profesionalen alternatiba. Emaitzak aurreragoko laga eta harrobia, prestaketa fisikoa, zainketa medikua, arlo tekniko, txirrindularien hautaketa-sistemak beste era batera antolatuko dituen taldea.

Hori ematen badigu, Fundazioaren alde nago, baina aitortu behar dut gauza dexente ilun xamar ikusten ditudala oraindik.


Joseba Lezeta



Euskal Bizikleta

Bicicleta Vasca

93



**ZU BEZALA,
KIROLZALEA**

kutxa beti ere aurretik kirolari laguntzen



Gipuzkoako zaletu guztien alde.
Gure gazteen alde. Eta gure tradizioen
alde. **kutxa** beti ere gailen.
Gipuzkoar guztien alde.
Gurea den guztiaren alde, **kutxa** beti
ere laguntzaile. Laguntzaile jator.
Horregatik ospatuko dugu pozaren
pozez Arraterako igoeraren 50.
Urteurrena. Euskal Bizikletaren
arrakasta bat gehiago. Gipuzkoar
kirolaren beste arrakasta berri bat.
Gipuzkoaren alde: bihotz-bihotzean
daramagulako.



... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa

gipuzkoa: bihotz-bihotzean

TRINITATE JAIAK

Arratsaldeak, ekarri zuen haurrentzat entrenigarririk. Juerga ederra izan zuten txikitxoek Aita Agirre Plazan, zezen mekanikoa, gaztelu puzgarri, kart eta trenarekin.



Trinitate goizeko protagonista, musika izan zen. Udal txistularien kalejira, eliz abesbatzaren partaide-tza eta Eibarko Udal Musika Bandaren kontzertua izan ziren igande goizeko musika ekintza garrantzitsuenak. Eguerdirarte, erraldoi eta buruhandien alardeak kaleak alaitu zituen Elgoibar, Arrasate eta Sanguesako konparsek lagunduta.



Hona hemen igande arratsaldeko herri kirolen jaialdian omendu zituzten herriko sei harrijasotzaileak "Agarre", "Irunaso", "Mintxeta", "Bioin", "Alzate" eta "Sansón" Udaleko ordezkarien eskutik garaikurra jaso ondoren. "Egi" baserriko Jabier Arriolak 100 kiloko zilindro berriarekin marka berria lortu zuen. Azkolariei dagokienean, Muguruza I eta Iiena eta Manzisidor eta Elorriaga bikoteen arteko lehian, lehen bikoteak garaipena lortu zuen, 24 minutu eta 14 segundutan burutu baitzuen froga.

Astean zehar, berriz, musika eta dantzari buruzko kontzertu eta hitzaldiak egon dira. Astearte iluntzean, Poloniako "Arkadiusz" laukoteak kontzertu bat eskaini zuen Herriko Antzokian, eta, ostegunean, "Franz Danzi" boskoteak ere beste kontzertu bat eman zuen, Herriko Antzokian azken hau ere. Halaber, Juan Antonio Urbeltzek Soka-dantzari buruzko hitzaldia eman zuen astearte arratsaldean. Gaur eta biharko, berriz, Gipuzkoako dantzen ikastaroa antolatu du Musika eta Dantza Fundazioak.



MIMOX

Lure oparirik hoberena

OPARIAK - DISKOAK - LORE NATURALEZKO ERRAMUAK ETA ZENTROAK - LORONTZIAK - KOROAK - TELAZKO ETA LORE ZIKUZ EGINDAKO KONPOSAKETAK -EMAZTEGAIENTZAKO ERRAMUAK - KOTXE DEKORAZIOAK - ELIZ APAINGARRIAK

San frantzisko, 19 - Tel: 74 42 13

EMH
ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

HIZKUNTZAK UZTAILEAN Ikastaro trinkoak



HIZKUNTZAK Alemana, Frantsesa, Ingelesa

MAILAK Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, Aurreratua, Teknikoa, Komertziala, Itzulpena (Eskaeren arabera)

IRAUPENA 44 ordu (2 egunero), uztailaren 1etik 30era

ORDUTEGIA 8:00ak eta 14:00ak bitartean

IRAKASLEGOA Natiboa

IKASLEGOA 15 urtetik gorakoa

MATRIKULA Ekainak 25a arte (Plaza mugatuak, talde txikiak)

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

Erraminta Makina Institutua
Hizkuntz saileko arduraduna
San Roke Auzoa, 1

20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Tel.: (943) 74 41 32 - Fax: (943) 74 41 53

9:00 - 13:00 14:30 - 17:30

Nola komunikatu umearekin jaio aurretik

Jose Migel Amostegi Elgoibar eta Eibarko Errehabilitazio zentruetako zuzendaria da eta bera dugu pertsonalki haurdun dauden emakumeak erditzeko prestatzeaz arduratzen dena. Jose Migel Bartzelonatik etorri berria da. Hango Unibertsitatean, post-graduako kurtsoan dabilzan fisioterapeutei, Psiko-Profilaxis obstetrikoa (P.P.O.) deritzonari buruzko ikastaroa ematen ari da.



Galdera- Amostegi jauna, zer dira Bartzelonan ematen dituzun ikastaro hauek?

Erantzuna- P.P.O ikasi nahi duten fisioterapeutei zentru publiko, zein pribatuetan haurdunekin lan egin ahal izateko.

G.- Anestesia hartzeko asmoa duten haurdunentzat baliagarriak al dira erditu-aurretiko prestakuntza hauek?

E.- Bai horixe. Gaurregun anestesia eskatzen duten haurdunei, epidurala hartzeko aukera eskaintzen zaie. Anestesia hau dilatazio fasea nahiko aurreratua dagoenean egin ohi da. Azken kontrakzioak hain mingarriak ez izaten laguntzen du gure programak. Anestesia hau asko perfektionatu da eta ama izatera doanak aktiboki har dezake parte azken ahaleginean.

G.-Azken urteotan, asko aldatu al dira erditze prestakuntzarako ikastaroak?

E.- Gaurregun, haurdun dagoen emakumea asko kontrolatu eta zaintzen da eta erditzean lehen baino protagonismo

gehiago ematen zaio, informazio gehiagoz eta tratu lasaiago eta goxoa goaz. Aitak ere leku garrantzitsuagoa dauka. Honi loturik HAPTONOMIAren erabilera aipatu nahi nuke. Amaren sabelean dagoen umeari afektibitatea ematean datza. Umea, beraz, jaio baino lehen, maitatua eta babestua sentitzen da, guraso eta bien arteko afektibitatea indartuz. Haptonomia, P.P.O.ren

emakumeak prestatzen ari garela eta elgoibartarrak ezezik, Deba Beheko bailarakoak ere izan ditugu. Une honetan ere mordoxka bat dira kurtso hau jarraitzen dutenak.

G.- Gaiz aldatuz, Mendaroko ospitalak errehabilitazio zerbitzua ireki du. Izan al du eraginik elgoibartarrengan neurri honek?

E.- Kualitatiboki ez du

Jose Migel Amostegi eta gainerako fisioterapeutek, Jose Mari Arakistain "Arakis", Juan Iñiguez eta Nerea Lariz, Cordoba doktorea eta erizain taldearekin batera, errehabilitazio zentru hauetan lanean ari direnak dira. Talde honek Elgoibar eta Deba Beheko bailarako biztanlegoari errehabilitazio asistentzia eskaintzen jardun du urte askotan.

barnean Europako azken iraultza da. Estatu espainiarrean hogeitabat pertsona gara zientzia hau landu dugunok.

G - P.P.O.ren ikastaro honetaz baliatu diren emakume elgoibartarrak, asko izan al dira?

E.- Askok eta asko. Badira 20 urte, haurdun dauden

eraginik izan. Dena den errehabilitazio prozesua luzea dela kontutan izanik, bezero askorentzat eragozpen garrantzitsua suposatzen du Mendaroraino joateak.

G.- Eta zuen zentruan ez al dituzte tratamendu hauek baimentzen?

E.-Noizik eta behin, beti

ere oso justifikatua dena. Osakidetza gastu-murrizketa eta erabilpen zuzenaren politika jarraitzen du eta, hau horrela, logikoa da lehenengo beraien instalazioak erabiltzea eta gero, zentru kontzertatuenak, gurea kasu.

G. - Errehabilitazio pribatua garestia al da?

E. - Prozesuen asistentziaren araberakoa da. Halere, nik ezetz esan dezaket. Gure eskualdean jasaten ari garen krisia eta Osakidetzaen murrizketa politika dela eta, bai bezeroen traslazioak direla, bai itxoinzerrendak direla, egoerari aurre egin nahi izan diogu, gure eskaintza ahalik eta justuena izaten saiatu garelarik. Era honetan, beharra duen edonork, errehabilitazioa egiteko aukera izango du, arazo ekonomikoak oztopo izango ez direlarik. Kasu guztiak behar bezala aztertzen dira eta guztiak dute soluzioa.

Luis Mari Zubiaurre:

"Artea eta inprenta banaezinak dira"

Luis Marik kuadroak margotzeaz gain, autoedizio eta diseinu enpresa bat du. Bertan gure herriko paretak jazten dituzten kartel eta propaganda asko egiten dira.

Fernando Beorlegik Kandiskyrekin erlazionatu zuen Luis Mari, bere lana ezagutzen ez zuenean. Erakusketetatik ezin daitekeela bizi aitortu digu.

-Noiz hasi zinen margotzen?

-Hamaika urterekin erre-galatu zidaten lehen pintura kaxa eta nere lehenengo kuadroak 11 urterekin egin nituen.

-Zure lana zein estilo edo mugimendutan sartuko zenuke?

-Nere ustez orain ez dago mugimendu eta horrelakorik, mareak eta teknologiak dira. Hau indibiduoak aspektu ezberdinetan erantzuteko duen kapazitatearekin nahasten da; bai eskulanean, talde, pertsona batekin edo ordenadore batekin. Argi dago honetara dedikatzen denak sistema batzurekin abildosoa izan behar duela eta, horregatik nik aspektu guzti hauek jorratzen ditut. Ez nuke nere lana estilo baten sartuko.

-Elgoibarren egindako erakusketak salmenta mailan lagundu al zizun?

-Hitzemanda zeuden 11 kuadrotik 3 saldu nituen. Gutxinaka beti joan naiz nire lanak saltzen eta horregatik ez diot saltze edo ez saltze kontu horri beldurrik. Orain abuztuaren 11an Mutrikun egin behar dut erakusketa bat eta urtean behin edo erakusketak egiten jarraituko dut. Beraz, saldu edo ez saldu,



“Arteak dena inbaditzen du, edozein lekutan egon daiteke”

nik lanean jarraituko dut, diruak ez nau arduratzen.

-Zer iruditzen zaizu artea tabernetan erakustea?

-Ez zait gaizki iruditzen. Artea egiteko lekurik onena kalea dela uste dut eta kuadroak kaleetako paretetan egin beharko lirakeela ere bai. Herri garbi bat paret guztiak txuriz dituena dela esaten dutenekin ez nago ados; Kanariar irletan, Hego Amerikan, leku pintoresko eta politetan jendeak bere etxeak margotzen ditu eta honek sentsazio garbi eta

polit bat ematen du. Mundu mailan gero eta gehiago ikusten dira metroko estazioak, edifizioak e.a. margotuta. Beraz, arteak dena inbaditzen du eta ez dago kuadro bat, esposizio gela batean edo taberna batean sartu beharrik; artea edozein lekutan egon daiteke.

-Kuadroak margotzeaz aparte, autoedizio eta diseinu grafikoak ere egiten dituzu.

-Bai, diska batetarako lehen portada 76. urtean egin nuen eta hau izan zen nere lehen kontaktoa

inprentarekin, nahiz eta erreproduzio prozesuan ez nuen parte hartu. Gauza da zuk obra bat egitean bakarra dela eta prezio bat duela. Obraren tiradak egiteak prezioak merketzeko balio du. Artea ezin da inprentatik banandu, inprenta arte grafikoak dira; dena loturik dago, ingurune bat osatzen dute.

Informatikak arte grafikoaren mundua goitik beheara eraldatu du. Nik teknologia batzuren funtzionamendua ikasi dut eta orain honi esker bizi naiz; erakusketetako koadroetatik bizi beharko banu, ziur beste lan batetan arituko nintzela.

-Zer edo nor gustatuko litzaizuke margotzea?

-Niri pintatzeko orduan gehien gustatzen zaidana arkitektura da; edifizioak, plazak, etxeak... Pintura eta arkitektura erlazionatzea gustatuko litzaidake.

-Zer proiektu dituzu?

-Alde batetik ETBk duen ingurune grafiko oso sofistikatu batean lan egitera sartuko nintzateke hau garatzeko asmotan emaitzak ETBrentzat izango lirakeelarrik. Bestalde, puntako teknologi enpresa baten montaketan gaude.

Belen Arrizabalaga

Mikel Dakinta



- Mikel ala Dakinta lagunentzat?
-Dakin.
- Bilbo ala Donostia? - Bilbo.
- Athletic ala erreala? -Athletic-a.
- Talde batean jarraitzaile porrokatua izatea, ona al da bihotzera-ko? -Ez, baina zerbaitegatik ilusioa izan behar da.
- Taberna askotan egon zara lanean, non hobetoen? -Guztietan egon naiz oso gustura.
- Juergazalea? -Bai, nik dudan bertute edo akats bat da.
- Goizeko ala arratsaldeko txikiteoa? -Goizekoa.
- Herriko alde zaharra ala berria? -Alde zaharra.
- Ardoa, sagardoa, garagardoa....., zer nahiago? -Sagardoa.
- Zerk lotsatzen zaitu? -Oraindik deskubritu egin behar dut.
- Gaiztoa al zinen txikitan? -Bai, nahiko gaiztoa nintzela uste dut.
- San Bartolometako karrittoa berdina izaten al da urtero? -Ez, urtero ezberdina. Azken orduan prestatutako zerbait.
- Inori bizarra kendu diozu? -Laupabost pertsonari.
- Gehien haserratzten zaituena? -Jendearekin ezin ulertzeak.
- Kolore bat? -Gorria.
- Abeslari ere bazaitugu. Nola ikusten duzu Todor eta bion taldea? -Gauza gehienetan berdinak gara, altueran ezik.
- Ekitaldiren bat burutu al duzue? -Batzuk bai. Gestoretan bizpahiru bider, eta afarrietan.
- Asko jaten al duzu? -Nire ustez normal. Nire amak dioenez, nahiko gutxi.
- Noiztik txisteak kontatzeko zaletasuna? - Txikitatik, eskolan nengoenetik.
- Zaila al da pertsona edo talde bati barre egin araztea? - Ez da erraza, baina normalean jendeak barre egiten du.
- Gehien atsegin duzun umorista? -Eugenio.
- Bukatzeo, txiste bat bota. -Mutil bat kristoren mozkorrarekin goizeko zazpitan etxera doa eta aita sukaldean dagoela honela esaten dio-Zer? gaur aterri? -Ez. Gaur a pontxe.

Isabel Ansola

BERTSOTAN

UDALEKUAK

Doinua: Loreak udan

Uda garaian hamabost egun
poz pozik pasatzekuak
bertan parrandak egiten dozuz
horrez gainera jokuak
ezautzeaz gain mutil da neska
rubio ta morenuak
benetan txoko politak dira
oraingo udalekuak

Urtero hainbat neska ta mutil
bertara gera joaten
eta norbera beste batzuekin
lagunak gara egiten
nahiz eta batzuk udaran ere
jarraitzen dute ikasten
nik liburuak alde batera
arrituko naiz jolasten

Jon Garate



UDA HONETAN

ESAIOSU BAIETZ EUSKARARI

- Ikastaro trinkoa:** 5 ordu egunero
- Iraupena:** Ekainaren 28tik uztailaren 23ra
- Matrikula epea:** Ekainaren 14tik 25era



Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

“Tiro al plato” txapelketa

Pasa den aste bukaeran “La Union” arrantza eta ehiza elkar-teak tiro al plato txapelketa anto-latu zuen San Pedroko tiro zelaian. Goizean goiz hasi zen txapelketa, bederatzi t´erdiak inguruan, eta bertan 19 tiratzailek, elkartekoak zein herrikoak, hartu zuten parte. Lehen postua, Jose Villarchaok eskuratu zuen 25 plateretik 24 apurtuz. Saikapena honela gelditu zen:

1. Jose Villarchao (24/25)
2. Javier Uzuriaga (23/25)
3. Jose Luis Azpiri (23/25)
4. Ramon Agirregomezkorta (23/25)
5. Jose Azpiazu (22/25)

Bestalde, denboraldi honetarako ehiza baimena atera nahi dutenek La Union elkartean egin ahal izango dute asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 8etara.

Emaitza onak txirindulari elgoibartarrentzat

Pasa den astebukaeran, Elgoibarko Lagun Taldeko kadeteek, bi lasterketa korritu zituzten. Lehen urteko kadeteen kategoriako lasterketan, *Zaer Motor* taldeko Orkatz Amutxastegi elgoibartarra bigarren helmugaratu zen irabazlea baino sei segundu beranduago.

Igandean, berriz, bigarren urteko kadeteen Gipuzkoako txapelketan, *Muebles Olatz* taldeko Pedro Cerviño, 8. postuan sartu zen helmugan irabazleak egin zuen denbora berdinarekin.



Javier Arriola

Marka berria lortu du zilindroarekin

-Pasa den igandean 108 jasoaldi egin zenizkion 100 kiloko zilindroari...-Bai. Nuarbeko batek zeukan marka hobena, 103 jasoaldikoa. Marka hori 5 jasoaldirekin hobetzea lortu nuen igandean. 108 jasoaldi denera. Gehixuago egiteko ideia neukan baina...

-Herrian bertan lortutako marka gainera. Urduri al zeunden? -Oso. Lehenengo tandan oso nerbiooso egon nintzen. Bero handia zegoen gainera. Nik banekien marka hobetu egin behar nuela eta horrek erresponzabilitate handia dauka. Bigarren tandan, ostera, jasoaldi gutxiago egin arren, hobeto ibili nintzen.


-Lortu duzun marka hobetzeko asmorik? -Hemendik aurrera exhibizioak, eta abuztuan kanpeonatu batzuk dauzkat. Aurten behintzat ez det pentsatzen marka hausterik eta datorren urtean seguruen ezta ere.

-Euskadiko txapelketan aurten ere irabazle izateko aukerarik?

-Ahalegina egingo degu. Joan zen urtean atera gendun eta aurten ere ez badira gauzak konplikatzen atarako degu. Jendea oso ondo preparatuta dago aurten.

-Hankautsik ibiltzen zara harrijasotzen.

Zergatik? -Nik uste, hankak lurrean hobeto asenta-



tzen zaizkidala horrela. Ohitura daukat. Zapatilekin hankak gehiago mugitzen dira. Zerbait serioa danian nahiago det zapatila gabe aritzea.

-Harri zail eta errazak al daude?

-Errazena igandean ibili nuena da, zilindro berria. Pisua behetik kendu eta goian jarri diote, jasotzeko errazagoa izan dadin.

-Herri kirolak baserritarren kirolak al dira?

-Lehen bai, gehienak baserritarrak ziren. Baina igandeko jaialdian, adibidez, zazpi harrijasotzaitatik lau behintzat kalean jaiotakoak ziren. Gero eta zaletasun handiagoa dago baina oraindik behar du laguntza herri kirolak.

● **Adina:** 19.

● **Trikitixa ala rock-a?** Trikitixa.

● **Beste kirolik?** Korrika egitea.

● **Idolorik?** Zelai.

● **Desio bat?** Aurtengo txapelketa irabaztea.



Muruamendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*



Andoni Gisasola
ALBAITEROA

- Medizina orokorra
- Zirugia
- Traumatologia
- Analiak
- Radiologia
- Txertoak
- Baimu antiparasitarioak
- Txakur ileapaindegia

k / Barrena 16 EIBAR Tel. 12 19 86

Ikasxerox taldeak eskubaloiko Euskadiko txapelketa jokatuko du asteburuan

Ikastolako "Ikasxerox" eskubaloitza taldeak, Gipuzkoako txapelketan irabazte atera ondoren, Euskadiko txapelketaren titulua eskuratzeko lehen partidua jokatuko du larunbat honetan, hilak 12, Gasteizen.

Gipuzkoako txapelketaren finalerdiko partidua irabaziko balute, igandean finala jokatuko lukete. Finalerdia galduz gero, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partidua jokatuko beharko lukete, igandean ere bai. Gure aldetik, zortea opa diegu eta ia txapela eskuratzeko duten!

Argazkian, zutik: Unai Arrieta, Xabier Uribeberria, Igor Lizarralde (entrenadorea), Iñigo Gurrutxaga, Jon Zubiaurre, Josu



Perea, Manu Ibarluzea eta Andoni Mujika.

Makurtuta: Asier Mujika, Ander Goikoetxea, Jose Sanchez, Josu

Gabilondo, Ernesto Villariño eta Egoitz Gurrutxaga. Falta dira: Kepa Mendikute eta Julen Hernandez.


BEKI ZAPATILAK

adidas

NIKE

AVIA

Reebok



BEKI ZAPATILAK



EKEKEI: Zazpi pirata "Hiltegia"

Ekekei, Elorrio aldean erabiltzen den haurren espresio bat omen da. 1988. urtean taularatu zuen antzerki talde honek lehen antzeslana: "Ni naiz kapitain pilotu". Taupada antzerki taldearen banaketatik sortu zen ildo ezberdin bat jorrazteko animoaz. Egun, zazpi kidek osatzen dute antzerki taldea: Izaskunek, Txotxek, Xabik, Iñakik, Mikelek, beste Mikel batek eta Elik.



↳ Txotxe, Xabi eta Izaskun "Hiltegia", eskuartean duten lanaren atrezzoarekin.

Hasieran, hiru kidek "Ni naiz kapitain pilotu" antzeslana egiteko proiektua eskuartean zutela eta, hura antzesteko jendea biltzen hasi ziren. Piratak aitzaki, 1992. urteko ospakizunak gainean zeudela, Amerikaren aurkikuntzaren salaketa da obra honen gaia. Harrezgeroztik batzuk joan eta beste batzuk etorri dira. Orduetik, txotxongilo antzeslan bat, "Handia haiz txikitxo" izenekoa eta bi sketch burutu dituzte: bata, adierazpen askatasunari buruzkoa eta bestea, desmantelamendu industrialari buruzkoa. Orain antzeslan berria prestatzen ari dira. "Hiltegia" izenburua du lanak. Gai aldetik

abstraktuagoa da: gizarte-ko estamentu ezberdinen arteko borroka azaltzen du.

"Hiltegia" antzeslana abenduan estreinatuko dute. Seguraski Azpeitin egingo dute lehen emanaldia, eta horrela balitz, Elgoibarren aurre-estreinua egingo lukete.

Antzeslanetan erabiltzen duten materialea beraiek egindako eskulanak dira. Gidoitik hasita, dena egiten dute taldean, eszenografia, muntaia... Jantziak eta musika prestatzeko, laguntza puntuala eskatzen dute.

Dirulaguntzak makal

Antzerki panorama, eskasa da Ekekeikoen

ustez. Aldundiak emandako diru laguntzak nahiko makalak izan dira orain arte eta diru iturri nagusiena emanaldietatik ateratzen duten dirua da. Aita Agirre plazan duten lokalak ere garai hobek etorri arte itxaron beharko du berrikuntzarik ikusteko.

Antzerkirako zaletasunari dagokionean, Elgoibarren bi antzerki talde egoiteak zerbait esan nahi du Ekekeikoen ikuspuntutik. Elgoibarren betidanik egin izan da antzerkia baina antzerkirako zaletasuna egon dadin, antzerkia jendeari eskaini egin behar zaio. Politika kulturala ez da egokiena antzerki talde

txikientzat. Hasi berri diren taldeentzat edota diru apur bat ateratzeko beharrezkoak dira Ekekeikoen ustez Gaztetxeak bezalako zirkuito txikiak. Bideak gero eta murriztagoak dira.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1987
Arduraduna: Ez dago
Kideak: 7
Emanaldi kopurua: 25 urtean
Azken lana: "Reziklator"
Estreinatzeko: "Hiltegia"
Helbidea: Aita Agirre plaza

OINETAKOAK
 San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35


KANTABRIA
Jatelexea
 Tel: 12 12 62 ARRATE-EIBAR

- ♠ Ezkontzak
- ♠ Bataioak
- ♠ Bazkariak
- ♠ Despedidak

“Joxe Migel Barandiaran” beka lortu dute bi ikerlari elgoibartarrek

Koldo Lizarralde eta Borja Movellan elgoibartarrek Eusko Ikaskuntza eta Joxe Migel Barandiaran Fundazioak elkarrekin ematen duten etnografia eta antropologia beka jaso dute. Urtero ematen duten beka hau, arkeologia lanak burutzeko izan ohi da urte batean eta etnografia eta antropologia lanak burutzeko hurrengoan. Koldo eta Borjak, beste hiru lankiderekin batera, Gipuzkoako ermitei buruzko ikerlana burutzeko jaso dute bi erakunde hauen dirulaguntza. Bekaren zenbatekoa 2 milioi eta 4 mila pezetako da eta baldintza bakarra, lana bi urteren buruan egitea.

Gipuzkoako ermitei buruzko ikerketa, katalogazio soila baino askozaz sakonagoa izango da. Ermitak banan banan aztertuko dituzte, bakoitzaren bizitza eta arkitektura aztertuko dute, ondoren planoak egin eta artxi-boetan ikertzeko. Ermita bakoitzeko, bizpauru pertsonari gutxienez galdeketak egingo diote, ehun galdera ingurukoa. Halaber, ermitetan egiten diren ospakizun guztiak jasoko dituzte. Dagoeneko 5.000 argazki baino gehiago bildu dituzte. Honetaz gain, Koldo eta Borjak Gipuzkoako ermiten argazkiak lortu nahi dituzte; horregatik ermitaren



➔ Koldo Lizarralde, ikerlana burutuko duenatariko bat.

baten argazkia duen edozein elgoibartar berauekin harremanetan jar daiteke.

Lan historikoa euskaraz egingo badute ere azken

produktua erdaraz izango da. Lana burututakoan Eusko Ikaskuntzak edo Fundazioak ikerlana argitaratuko du.

TRIKITILARI ESKOLAKO JAIALDIA

**Ikasle eta irakasleek parte hartuz eta
Haritz dantza taldearen laguntzarekin**

Ekainak

11

ostirala

Olaizaga
kiroldegian

Sarrera dohain

Gaueko

10,30 etan

ELGOIBARKO UDALA
MUSIKA ETA DANTZA FUNDAZIOA



FORU ALDUNDIAREN
LAGUNTZAREKIN



12 Larunbata

16,00 RADIESTESIA IKASTAROA
Tokia: Kultur Etxea

17,30 BIZIKLETA LASTERKETA
Irteera: Plaza handia.
Helmuga: Santa Klara.
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

22,00 UDAL MUSIKA BANDA-REN KALEJIRA

22,30 UDAL MUSIKA BANDA-REN KONTZERTUA

Tokia: San Bartolome eliza
Egitaraua:
"Erronda Gaztelan". Pasodoblea
R.Dorado
"Bandieten Streken". Obertura
F. Von Suppè
"Spiritual Rapsody". Rapsodia
P.Yoder
"Jangoikoaren arima". Aukeraketa
J. Serrano
"Làstima". Fantasia
A. Malando
Zuzendaria: J.A. Osoro

13 Igandea

10,00 KALEJIRA
Herriko dultzaineroen kalejira

10,30 FUTBITOA
Kopako finala:
Arroak-Univ. de Chile
Tokia: Urasandi

11,30 FUTBITOA
Ligako finala:
Kosakos-A.R. Egaña
Tokia: Urasandi

11,30 KALEJIRA
Udal txistulari taldea

12,30 TXISTU KONTZERTUA
Tokia: Udaletxeko arkupeak

16 Asteazkena

20,00 IKUSENTZUTEKO EMANALDIA
Gaia: "Ekialdetik Euskal Herrira"
Javier Juanesen eskutik
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: AEK, Kutzaren babesarekin

20,00 KONTSERBATORIOKO JAIALDIA
Tokia: Herriko antzokia

17 Osteguna

20,00 IKUSENTZUTEKO EMANALDIA
Gaia: "Estropadak", Javier Juanesen eskutik
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: AEK, Kutzaren babesarekin

20,00 KONTSERBATORIOKO JAIALDIA
Tokia: Herriko Antzokia

18 Ostirala

20,00 KONTSERBATORIOKO JAIALDIA
Tokia: Herriko Antzokia

Artegi LEHIAKETA

Ekaineko galdera: Gure herritik hain zikin pasatzen den Deba ibaia, non jaio eta hiltzen da?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL:.....

Mikoondas bat zozketatuko dugu zuzen erantzutan duzuenon artean. Pertsona bakoitzeko erantzun bakarra onartuko dugu. (Anima zaitzte eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Lana

Igurgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe.
74 25 35

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora.

Salerosketak

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskaren neurriak; luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.
Alberto: 74 14 94

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean).
74 08 79 Julian edo Maria Jesus

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47** telefonoetara.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari.**
Tel: 74 21 35-74 22 10

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

SUP'T.G.
Ecoles Supérieures des Techniques de Gestion



Deba Behea

GESTIO ESKOLA

- Ikasketa berri baten bila bazabiltza
- Zeure bizimodua gestiogintzan ikusten baduzu
- Giza taldeekin jardutea gustatzen bazaizu
- Bide berriei ekitea gustoko baduzu

Zugana dator Europa mailako Unibertsitatea: Frantziako "SUP'T.G." sarea

- ✎ 4 urteko Heziketa Europa mailako titulazioaz
- ✎ "SUP'T.G." sareak homologatuta eta babestuta
- ✎ Deba Behean kokatua. Kanpotik datozen ikasleentzako egoitza

Informazioa eta Izen ematea

IMH Edifizioa. San Roke Auzoa 1. Tfonoa: 74 41 32 (Susana Azpilikueta) 20.870 ELGOIBAR



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR